

2017ko nazioartekotze bekak ***Becas de internacionalización 2017***

KULTURA PROBA
A EREDUA

2017-04-08

1 NOLA DEFINITUKO ZENUKE HERRIALDE BATEK DUEN KANPORAKO IREKITZE-MAILA?

- 1a) Herrialde bateko esportazioen eta inportazioen arteko diferentzia garbia.
- 1b) Herrialde baten kanpo-merkataritzaren pisua, barne produktuarekiko.
- 1c) Beste herrialde batzuekin sinatutako merkataritza-itunen kopuruaren bidez.
- 1d) Herrialde horren esportazioen hazkunde absolutua.

2 ZEIN DA NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN (NBE) EGUNGO IDAZKARI NAGUSIA?

- 2a) Antonio Guterres.
- 2b) Luis Inazio Lula da Silva.
- 2c) Boris Tádíc.
- 2d) Ban Ki-Moon.

3 ZEIN DA EUROPAKO PARLAMENTUKO EGUNGO LEHENDAKARIA?

- 3a) Martin Schultz.
- 3b) Antonio Tajani.
- 3c) Michéle Alliot-Marie.
- 3d) Seán Kelly.

4 NON DAGO FICOPA ERAKUSTAZOKA?

- 4a) Madrilén.
- 4b) Donostian.
- 4c) Irunen.
- 4d) Durangon.

5 ZENBAT DIRA ARABAKO LEGEBILTZARKIDEAK EUSKO LEGEBILTZARREAN?

- 5a) 20.
- 5b) 25.
- 5c) 15.
- 5d) 10.

6 ASTEKO ZEIN EGUNETAN EGITEN DA ORDIZIAKO NEKAZARITZA-AZOKA?

- 6a) Astelehenean.
- 6b) Larunbatean.
- 6c) Asteazkenean.
- 6d) Ostegunean.

7 ZENBAT MICHELIN IZAR DITU LARRABETZUKO AZURMENDI JATETXEA?

- 7a) 1.
- 7b) 2.
- 7c) 3.
- 7d) 4.

8 ZEIN HILETAN EGIN OHI DA DONOSTIAKO ZINEMALDIA?

- 8a) Azaroan.
- 8b) Irailean.
- 8c) Ekainean.
- 8d) Uztailen.

9 ARARTEKOA ESATEN ZAIO EUSKARAZ...

- 9a) Herriaren defendatzaileari.
- 9b) Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariari.
- 9c) Eusko Legebiltzarreko lehendakariari.
- 9d) Ertzaintzako komisario buruari.

10 EUROPAR ARAUDIAREN ARABERA, EAEK EDUKI AL DEZAKE SOZietate-ZERGA BAT, ESPAINIAR ESTATUKO GAINERAKOEK DUTENAZ BESTELAKOA?

- 10a) Ez. Estatuak du sozietate-zergaren gaineko eskumen eskusiboa.
- 10b) Bai.
- 10c) Soilik, Diputatuen Kongresuan EAEko Foru Aldundien proposamen bat onartzen bada, sozietate-zergaren inguruan.
- 10d) Soilik, EAEko sozietate-zerga motak ez badira lehian sartzen estatukoekin.

11 NORK BETETZEN DU, GAUR EGUN, ERRESUMA BATUKO LEHEN MINISTROAREN KARGUA?

- 11a) David Cameron.
- 11b) Gordon Brown.
- 11c) Theresa May.
- 11d) Andrea Leadsom.

12 NON DAGO KOKATUTA ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK KUDEATZEN DUEN OLATUEN ENERGIAKO ZENTRALA?

- 12a) Bilboko portuan.
- 12b) Oiz mendian.
- 12c) Mutrikun.
- 12d) Muskizen.

13 ZEIN HERRIALDETAN EGITEN DA, URTERO, DAVOSEKO FORO EKONOMIKOAREN TOPAKETA?

- 13a) Liechesteinen.
- 13b) Suitzan.
- 13c) Grezian.
- 13d) Danimarkan.

14 ZEIN ERAKUNDEREN ESKUMENA DA EUSKADIN ABIADURA HANDIKO TRENAREN OBRAK FINANTZATZEA?

- 14a) RENFErena.
- 14b) ETSrena.
- 14c) ADIFena.
- 14d) Euskadiko Garraio Partzuergoarena.

15 ZER IZENBURU DU EUSKARAZ IDATZITAKO LEHEN LIBURUAK?

- 15a) Guero.
- 15b) Linguae Vasconum Primitiae.
- 15c) Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria.
- 15d) Obabakoak.

16 ZEIN PROBINTZIATAN JAIO ZEN DOLORES REDONDO IDAZLEA?

- 16a) Nafarroa.
- 16b) Araba.
- 16c) Bizkaia.
- 16d) Gipuzkoa.

17 ZEIN HERRIALDEK EZ DU EUROA MONETATZAT?

- 17a) Austriak.
- 17b) Suitzak.
- 17c) Finlandiak.
- 17d) Greziak.

18 ZEIN DA KAZAKHSTANGO HIRIBURUA?

- 18a) Almaty.
- 18b) Astaná.
- 18c) Atyrau.
- 18d) Aktau.

19 ZEIN SAILEN MENDE DAUDE EUSKO JAURLARITZAREN NAZIOARTEKOTZE BEKAK?

- 19a) Enplegua eta Gizarte Politikak.
- 19b) Ogasuna eta Ekonomia.
- 19c) Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak.
- 19d) Hezkuntza.

20 ZEIN DA MUNDUKO IBARIK LUZEENA?

- 20a) Nilo.
- 20b) Amazonas.
- 20c) Mississippi.
- 20d) Yangzi.

21 ZEREKIN DAGO LOTUTA GAUSSEN KANPAIA?

- 21a) Probabilitatea.
- 21b) Segurtasuna.
- 21c) Ezinezkotasuna.
- 21d) Inteligentzia.

22 HERRIALDE HAUETATIK, ZEIN EZ DA BRAZILEN MUGAKIDE?

- 22a) Txile eta Uruguai.
- 22b) Ekuador eta Argentina.
- 22c) Peru eta Kolonbia.
- 22d) Txile eta Ekuador.

23 NORK IDATZI ZUEN “CIEN AÑOS DE SOLEDAD”?

- 23a) Camilo José Celak.
- 23b) Antonio Machadok.
- 23c) Benito Pérez Galdósek.
- 23d) Gabriel García Márquezek.

24 ZEIN DA JORDANIAKO HIRIBURUA?

- 24a) Kabul.
- 24b) Amán.
- 24c) Riad.
- 24d) Damasko.

25 ZEIN INSTITUZIO ARDURATZEN DA NAZIOARTEKO DIRU-LANKIDETZA SUSTATZEAZ?

- 25a) NDF (Nazioarteko Diru Funtsa).
- 25b) MMA (Munduko Merkataritza Antolakundea).
- 25c) UNESCO.
- 25d) LANE (Lanaren Nazioarteko Erakundea).

26 FORBES ALDIZKARIAREN ARABERA, ZEIN IZAN DA 2016AN MUNDUKO EMAKUMERIK BOTERETSUENA?

- 26a) Hillary Clinton.
- 26b) Angela Merkel.
- 26c) Melinda Gates.
- 26d) Christine Lagarde.

27 ESTATU BATUEN ATZETIK, ZEIN HERRIALDEK DU INGELESEZ MINTZO DIREN BIZTANLEEN KOPURU HANDIENA?

- 27a) Indiak.
- 27b) Erresuma Batuak.
- 27c) Kanadak.
- 27d) Australiak.

28 ZEIN ELEMENTU DA DIBALENTEA?

- 28a) Azido sulfurikoa.
- 28b) Burdina.
- 28c) Sodio kloruroa.
- 28d) Hidrogenoa.

29 ZEIN SARE SOZIAL JAIO ZEN AURRENA?

- 29a) Facebook.
- 29b) Instagram.
- 29c) Twiter.
- 29d) LinkedIn.

30 EINSTENEN EKUAZIO EZAGUNEAN, $E=MC^2$, ZER ESAN NAHI DU “C” LETRAK?

- 30a) Masa.
- 30b) Energia.
- 30c) Abiadura.
- 30d) Argiaren abiadura.

31 ZEIN DA EUSKADIKO EKONOMIA ITUNARI BURUZKO DIBULGAZIOZKO OBRAREN EGILEA ETA AUTOREA?

- 31a) Pedro Azpiazu.
- 31b) Idoia Zenarruzabeitia.
- 31c) Pedro Luis Uriarte.
- 31d) Juan José Ibarretxe.

32 IRAGAN OTSAILAREN 26AN EMAN ZIREN OSCAR SARIETAN, AHOLKULARITZA-ENPRESA OSPETSU BATEK AKATS LARRI BAT EGIN ZUEN AZKEN SARIA EMATERAKOAN. HONAKO HAUETATIK ZEIN IZAN ZEN AKATS HORREN ERANTZULEA?

- 32a) Deloitte.
- 32b) BCG – The Boston Consulting Group.
- 32c) McKinsey & Company.
- 32d) PwC - PricewaterhouseCoopers.

33 ZEIN MINISTERIOREN MENDE DAUDE ESPAINIAKO EKONOMIA ETA MERKATARITZA BULEGOAK (OFECOMES)?

- 33a) Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa.
- 33b) Ekonomia, Industria eta Lehiakortasuneko Ministerioa.
- 33c) Sustapen Ministerioa.
- 33d) Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioa.

34 ZENBAGARRENA DA EUSKO JAURLARITZAREN EGUNGO LEGEGINTZALDIA?

- 34a) VIII.a.
- 34b) X.a.
- 34c) IX.a.
- 34d) XI.a.

35 ZEIN DA EGUNGO SUSTAPENENKO MINISTROA?

- 35a) Alfonso María Dastis Quecedo.
- 35b) Luis de Guindos Jurado.
- 35c) Álvaro Nadal Belda.
- 35d) Iñigo Joaquín de la Serna Hernáiz.

36 BASO-ESPEZIE HAUETATIK ZEINEK DU GAUR EGUN GARRANTZI EKONOMIKORIK HANDIENA EAEN?

- 36a) Pagoak.
- 36b) Intsinis pinuak (Pinus radiata).
- 36c) Haritz kandudunak.
- 36d) Arteak.

37 ARTISTA HAUETAKO ZEINEK EZ ZUEN PARTE HARTU “EZ DOK HAMAIRU” KULTURA-MUGIMENDUAN?

- 37a) Mikel Laboak.
- 37b) Xabier Letek.
- 37c) Lourdes Iriondok.
- 37d) Ruper Ordorikak.

38 ZEIN DA ZIRKUNFERENTZIA BATEN PERIMETROA?

- 38a) $2\pi r$
- 38b) πr^2
- 38c) $1/2 \pi r$
- 38d) $1/2 \pi r^2$

39 NOLAKOA DA PROTOIAREN KARGA?

- 39a) Positiboa.
- 39b) Positiboa eta negatiboa.
- 39c) Ez du kargarik.
- 39d) Negatiboa.

40 ZEIN DA EGUZKI-SISTEMAKO PLANETARIK HANDIENA?

- 40a) Lurra.
- 40b) Merkurio.
- 40c) Marte.
- 40d) Jupiter.

ORDEZKO GALDERAK

41 ZEIN DA POLONIAKO EGUNGO DIBISA?

- 41a) Poloniar koroa.
- 41b) Euroa.
- 41c) Poloniar libera.
- 41d) Slotia.

42 ZEIN DA LETONIAKO HIRIBURUA?

- 42a) Vaduz.
- 42b) Riga.
- 42c) Vilna.
- 42d) Praga.

43 OBRA HAUETAKO ZEIN EZ ZUEN IDATZI LEÓN TOLSTÓI-K?

- 43a) Crimen y castigo.
- 43b) Anna Karenina.
- 43c) Guerra y Paz.
- 43d) La muerte de Ivan Ilich.